

SL-NA GAZTELU ZOKOA

I.I.D.E.:

Amaiur – Gaztelu zokoa (errotako presa) - Amaiur

Luzeera: 1,450 km

Desnibela: 50 mt

Zailtasuna: ERREZA

Gaztelua mendiko erreka zokora ibilaldi erreza, Amaiurko errota hornitzen duten ubide eta presa-urtegian barrena. Honekin batera, herriko goiko aldean eta El Pilar ermitatik abiatuta, Gaztelua mendian dagoen monolitoa bisitatzen ahal da: bertan 1521 urtean Nafarroako Erresumaren Gaztelak egindako inbasioaren azken gotorlekua izan zen gazteluaren hondakinak (egun indusketa egoeran) aurkitzen dira. Ibilbidea herriko errotako bisita gidatuarekin osatzen ahal da.

ABIAPUNTUA > Amaiur, herriko sarreran. Eliza eta errota; aparkalekua eta iturria. Herrian bada ostatua eta hainbat alojamendu.

OHARRAK

- Ibilbidearen lehenengo 225 mtan Santiagoko Bidearekin bat egiten da (Baiona-Iruñea adarra, Belaten barna). Ibilbide hau gezi horiekin baliztatua dago.
- Eguraldi txarrarekin, Gaztelu zokoko tartea irristakorra izaten ahal da.

DESKRIBAPENA

0,000 km: AMAIUR (285 mt), herriko beheko aldea; errota. Elizaren ondotik gurutze batetara igo, bertaraino PR-NA 4 Baztangoiza ibilbidearekin koinzidituz. Puntu honetan PR utzi eta ezkerrera jo, Karrika Nagusian gora eta arku baten azpitik pasatuz; tarte honetan Santiagoko Bidearekin bat egiten da (Baiona-Iruñea), kontrako zentzuan.

0,225 km: Zizkainea etxea, jauregi itxurakoa. Karrika Nagusia utzi eta ezkerreko bide zabaletik jo, herrigunetik ateratzen.

0,330 km: Ikuilua, ezkerrean. Bide zabala utzi eta eskuineko bidexkatik segi, alanbrezko itxituraren ondotik eta basoan sartuz. Gaztelu mendiko magal ospela, ezpela eta hurritza ugari. Metro gutxitara herriko errota hornitzen duen kanala edo ubidera ailegatu; haren ondotik segi.

0,715 km: Araneko erreka, Bidasoaren iturburuetakoa bat, eta zementozko zubia. Haren gainean, 10 metrora, errotako presa. Hezetasun haundiko lekua, mendi magalean eta erreka ondoan. Bide beretik itzuli.

1,450 km: AMAIUR (285 mt), herriko beheko aldea; errota eta eliza. Ibilbidearen hasiera eta bukaera.